

GAZTE ARTE 2017



JENDE AURREKO ARTE GAZTEAREN LANTEGIAK
TALLERES DE CREACIÓN JOVEN EN VIVO

MONTEHERMOSO 2018ko OTSAILAREN 2tik 25era
MONTEHERMOSO del 2 al 25 de FEBRERO de 2018



Gazte Arte arte bisualen lehiaketa/lantegia/erakusketa da. Parte hartzeko edozein formatu erabil daiteke: pintura, eskultura, instalazioak, performanceak, happeningak, esku hartzeak, hiri artea, teknika mistoak, bideo-instalazioak edo komikiak. Hau da, objektu artearen edo materiari gabeko artearen ekoizpena eta erakusketa izan daiteke, gai librekoa eta sorkuntza gune berritzailea sustatzea helburu duena. Proposamen horrek hiru fasetan egin da: lehiaketa bera, tutoretzapeko sorkuntza eta erakusketa.

ERAKUSKETA

Lehiaketaren eta tutoretzaren ostean, erakusketa aldiari ekingo diogu. **Salim Malla eta Eloísa Montoya** Gazte Arte lehiaketan hautatutakoen lanez arduratu dira. Haiek dira gure artistak: **Mikel Arranz, Sarai Lópezek eta Leire Rojanok** osatutako taldea, **Nuria Pérez-Carcamo eta Maiela Zurutuza**.

Gazte Arte es un certamen/taller/exposición dedicado a las artes visuales en cualquier medio: pintura, escultura, instalaciones, performance, happening, intervenciones, arte urbano, técnicas mixtas, videoinstalación o cómic. Es decir, toca toda la producción y exhibición tanto de arte objetual como inmaterial. Las temáticas tratadas son abiertas en aras de impulsar un espacio de creación innovador. La propuesta ha constado de tres fases: concurso, creación tutorizada y exposición.

EXPOSICIÓN

Tras el tiempo dedicado al concurso y la creación tutorizada, presentamos la fase de exposición. **Salim Malla y Eloísa Montoya** se han encargado de comisariar el trabajo de: **Mikel Arranz, el grupo formado por Sarai López y Leire Rojano, Nuria Pérez-Cárcamo y Maiela Zurutuza**.

MIKEL ARRANZ

“Ustekabeko batuketak”




Surrealistek hiltzoz fina (*cadavre exquis*) izeneko teknika literarioa erabiltzen zuten, teknika hori pertsona talde batek konposizio sekuentziatua idaztean edo marraztean datza; horrela, pertsona bakoitzak bakarrik ikus zezakeen aurrekoak idatzten edo marrazten zuenaren azken zatia. David Bowiek Verbasizer programa sortu zuen, eta programak era aleatorio batean hitzak eta esaldiak lotzeko mekanismoa daukan softwarea erabiltzen zuen.

Era berean, *Ustekabako Batuketak* batuketa aleatorio bat dauka oinarrian. Baina, oraingo honetan, lantegietara hurbiltzen diren pertsonak proposatutako hitzak izango dira abiapuntu: ate irekien jardunaldietan zehar sartuko dituzte objektuei, izaki bizidunen atalei eta testuinguruari buruzko hitzak, paperetan idatzita, kutxa banatan; Mikelek kutxa bakoitzeko paper bat hartuko du ausaz, eta berez ustekabekoa izango den lana sortuko du.

Artistas surrealistas utilizaron la técnica del *cadavre exquis*, consistente en un juego en el que un grupo de personas escribían o dibujaban una composición en secuencia, de manera que cada persona solo podía ver el final de lo que había escrito o dibujado la anterior. David Bowie creó su programa *Verbasizer*, un software que utilizaba para escribir canciones mediante un mecanismo que unía palabras y frases de manera aleatoria.

Del mismo modo *Ustekabeko batuketak* se sustenta también en uniones inesperadas. Pero, en esta ocasión, toma como punto de partida las palabras que las personas asistentes a los talleres proponen: durante las jornadas de puertas abiertas han ido introduciendo en sendas cajas palabras referentes a objetos, a partes de seres vivos y a un contexto escritas en papeles; Mikel coge al azar un papel de cada caja y elabora una obra que en sí misma es totalmente imprevista.





SARAI LÓPEZ-LEIRE ROJANO

“Monotipo Conflicto Límites Colectivo Azar Cooperación”



Beste grabatuaren teknikak ez bezala, serieko ekoizpena lortzen dutenak, monotipia plantxa bakoitzeko inpresio bakarra lortzean datza, hau da, bakarrik eskuratzen da estanzazio bat orrian. Lan honek lankidetzan egindako prozesuaren adierazgarria da, helburu bera daukaten bi buruk: taldeak egindako monotipoa. Monotipo horretan biak elkartzen dira elkarrizketa piktoriko bat sortzeko.

Buru sortzaileen arrazoi pertsonalak dira monotipoen oinarria, baina horiek ez dute ikusleak deszifratzen saiatzea nahi, baizik eta interpretazio askea egitea. Pintura-lengoaiara itzultzen den elkarrizketa. Azkenik, zenbait ikuspunturekin sustatutako estampa ateratzen da, pinturarekin komunikazio era ezberdinak, eta horrela elkarrizketa piktorikoaren lekukoak sortuko dira.

La monotipia consiste en obtener una única impresión exacta de cada lámina, esto es, solo permite una estampación sobre papel, a diferencia de otras técnicas de grabado en las que se consigue una producción seriada. Esta obra es el reflejo del proceso colaborativo de dos mentes con un fin común, la creación de un monotipo conjunto. Un monotipo en el que ambas confluyen creando un diálogo pictórico.

Los monotipos se crean en base a los motivos personales de las mentes creadoras pero estas no desean que el espectador trate de descifrar sus motivos sino que interprete el monotipo con total libertad. Una dialogo traducido al lenguaje de la pintura. Finalmente nace una estampa nutrida con distintos puntos de vista, diferentes modos de comunicarse con la pintura, creando así, testigos del diálogo pictórico.





NURIA PÉREZ-CÁRCAMO

“Papaver”



Papaver ikus-entzunezko proiektua da, merkataritza sistema gaiztoan eta korapilatsuan esplotatu ahal izateko emakumea eta ingurune naturala objektu bihurtuaren inguruko instalazio itxura duena. Papaver proiektuak *Papaver Somniferum* landareari egiten dio erreferentzia, mitxoletari (lo-belarrari), hain zuzen. Opioa eta horren eratorriak ekoizteko, hau da, gizakiek bizi iturri naturala maneiatu eta gero mozkina eta

boterea lortzeko tresna bihurtuko dute mitxoleta.



Jaime Doranen *Opium brides* dokumentalak (2012, opiumaren neska lagunak) iradoki dio proiektua, horretan agerikoa da kapitalismoaren mozkina ateratzeko errukigabeko grinak izadia eta emakumea objektu ustiagarri eta kontsumitzeko zerbait bihurtzen dituela.

Egoera hori gehiegizkoa den arren eta beste kultura batetik datorren berezko egoera ematen duen arren, munduan zehar ere horrelako zerbait jasaten da. Hedabideek eta gizartearen iruditeria kolektiboak ematen duten emakumearen irudia -zapaldua eta menpekoa- egoera hori iraunarazten dute.

Papaver es un proyecto audiovisual con forma de instalación en torno a la objetivación de la mujer y del entorno natural, para su posterior explotación y utilización en un perverso y complejo sistema mercantil. *Papaver* hacer referencia a la planta *Papaver Somniferum*, la Amapola Real, utilizada para la producción de opio y sus derivados, esto es, vida natural que tras ser manipulada por la especie humana, se transforma en medio para obtener beneficio y poder.

El proyecto se inspira en el documental de Jaime Doran *Las novias del opio* (2012), donde queda patente que el despiadado apetito de beneficio del capitalismo, convierte tanto la naturaleza como la mujer, en objetos explotables y consumibles. Esta situación, aunque parezca desorbitada y procedente de culturas diferentes a la propia, no es distinta de la que se sufre en todo el mundo. Desde los medios y el imaginario colectivo de la sociedad, se construye una imagen de la mujer oprimida y subordinada que ayuda a perpetuar esta situación.





MAIELA ZURUTUZA

“Komorebi”



Komorebi hitza japonieratik dator, 木漏れ日, eta zuhaitzen hostoak zeharkatzen dituen eguzki argiari egiten dio erreferentzia, hau da, gai beraren inguruko haiku eta kaligrafia biltzen dituen proiektuari ematen dio titulua: izadiak eskaintzen dituen une iragankorren gozamena.

Alde batetik, haikua jatorrian japonierazko olerki labur bat da, naturaltasuna, xumetasuna, zorroztasuna, soiltasuna eta asimetria adierazten duen olerkia eta, oro har, izadia begiratzeko eragiten dituen zirrarekin zerikusia duena. Beste alde batetik, kaligrafiari hizki dotorearekin idaztearen artea esaten zaio. Horrela, marren, erritmoen eta itxura berariazkoen bidez, Komorebik beste dimentsio bat lortzen du, kaligrafiaren erabilerak haikuren ezaugarriak indartzen dituena.



Ekialdeko eta mendebaldeko kultura ere elkartzen dira, mendebaldeko kaligrafia eta ekialdeko olerkariak egindako olerkiak erabiliz, baina beti ekialdeko filosofiari eta estetikari begirunea erakutsiz.

El término Komorebi proviene del japonés 木漏れ日 y se refiere a la luz del sol que se filtra a través de las hojas de los árboles; da título a este proyecto que une poesía haiku y caligrafía en torno a un tema común: la apreciación de los momentos efímeros que ofrece la naturaleza.

El haiku, poesía originaria de Japón, se caracteriza por ser un poema breve que denota naturalidad, sencillez, sutileza, austeridad y asimetría y que generalmente expresa emociones producidas por la contemplación de la naturaleza. Por otra parte, la caligrafía se define como el arte de escribir con letra bella y la utiliza en su vertiente más expresiva, adquiriendo así una nueva dimensión donde las características del haiku se ven reforzadas por el uso de la caligrafía, mediante trazos, ritmos y formas específicas.

Fusiona además cultura oriental y occidental, utilizando caligrafía occidental y haikus creados por poetas occidentales, pero respetando en todo momento la filosofía y estética oriental.





GAZTE ARTE 2017KO ACCESITAK ACCÉSIT GAZTE ARTE 2017

Aurtengo edizioan 2 accesitek parte hartu dute lantegietan:

Esta edición hemos contado con dos accésit que han participado en los talleres



YURENA CARRERO. "Introspección"

Dantzak adierazpen gisara pinturarekin bat egiten du barne-barneko performance batean, Yurenaren hitzetan: "nire helburua da ahal dudan guztiarekin saiakuntzak egitea, inguratzeko dudarekin lan egitea, nerabe baten barruan dauden aldarre aldaketak, konplexuak eta kezak kanpora ateratzea eta adieraztea".

La danza como medio de expresión fusionada con la pintura en una performance muy personal, en palabras de Yurena "mi intención es simplemente experimentar con todo lo que me sea posible, interactuar con lo que me rodea, sacar todos esos cambios de humor, complejos y preocupaciones que se amontonan en el cuerpo de una adolescente y expresarlos".



MIKEL ROMERO. "Anaglifos del siglo XXI"

Hainbat filtroz eginiko bi argazki bata besteraren gainean ezarritako irudiak dira anaglifoak. Kristal gorria eta urdina dauzkaten betaurreko bereziak erabili behar ditu ikusleak, betaurreko horien helburua da begi bakoitzak irudi bana jasotzea; horrela, burmuinak hiru dimentsioko irudi optiko irreal interpretatuko du.

Eulalia Abaitua aintzakotzat hartzen du, bera lehenengo emakume argazkilari erreferentziatuta izan zen, bere inguruko jendeari argazkia ateratzen zion, herrikoak egunerokotasuneko bizitzan agertzen ziren irudi estereoskopikoetan, zerbait magikoa ematen zuen bere garaian (XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen hasiera).

Mikel Romerok hurrengo galderei erantzun nahi die: "hainbeste denbora pasa eta egungo teknologia hain urrun iritsi eta gero, ikusleek argazki horien aurrean erreakzio bera izango dute? Magikoak izaten jarraituko dute?"

XXI. mendeko anaglifoak lantegietara hurbildu diren pertsona guztiei aukera eman die bere irudia ikusteko era estereoskopiko batean.



Los anaglifos son fotos tomadas con filtros de diferentes colores superpuestas en una sola imagen. Se observan por medio de gafas anaglifas, cuya misión es hacer llegar a cada ojo una única imagen y que el cerebro pueda interpretar una tridimensionalidad óptica e irreal.

Fijándose en la figura de Eulalia Abaitua, primera fotógrafa vasca referenciada, centrada en retratar a la gente que le rodeaba, a las personas del pueblo en su vida cotidiana en forma de imágenes estereoscópicas, algo casi mágico para la época (finales del XIX, principios del XX).

Mikel Romero busca responder a las siguientes cuestiones: "¿Aun habiendo pasado tanto tiempo y avanzado tanto la tecnología en estos momentos, seguirán teniendo la misma reacción las personas que se encuentren estas fotos? ¿Seguirán siendo igual de mágicas?"

Anaglifos del siglo XXI ha dado ocasión a todas las personas que se acercaron a los talleres de ver su imagen retratada en forma estereoscópica.





MIKEL ARRANZ

SARAI LÓPEZ / LEIRE ROJANO

NURIA PÉREZ-CÁRCAMO

MAIELA ZURUTUZA

YURENA CARRERO

MIKEL ROMERO

KOMISARIOAK: Eloísa Montoya / Salim Malla



JENDE AURREKO ARTE GAZTEAREN LANTEGIAK
TALLERES DE CREACIÓN JOVEN EN VIVO

14 URTEtik 25era BITARTEKO GAZTE^{ENTZAT}
PARA JÓVENES de 14 a 25 AÑOS

